



INSER :
Iparralde eta nafarroa solidarioak eta ekoarduratsuak

Nekazaritza-ustiategi solidarioen jasangarritasunari babesa ematea eta ekologikoki arduratsua den ingurune batean laneratzen laguntzea.



Bazkideen

Azpildako ESATa

4 Route d'Etcharry
64390 Azpilda

Gure Nahia ESATa

Route de Saint Pée
330, chemin Haietako Larrea
64210 Arbona

Les jardins du Refuge

102 Avenue de l'Abbé Cestac
(lehen, av. Montbrun)
64600 Angelu

ELKARKIDE

Aranzadiko bira 4,
31014 Iruña (Nafarroa)

Uhaldia

691 chemin d'IHINTZETXEBERRIA
Minhotz auzoa

64240 Hazparne

Josenea

Bordablanca finka
Donostia bidea z.g.,
31440 Irunberri – Nafarroa

ASPACE BIOINTEGRA

Kale bakarra, 31650 Orreaga

La Ferme Caubraque des Médicinales

2312, chemin de Riche 64300
Baigts-de-Béarn

Helburuak

Proiektu hau Iparraldeko eta Nafarroako gizarteratze-etxalde ekoarduratsuetan (Inser) burutu da, Pirinioetako Lan Elkarreak finantzatuta, mugaz gaindiko trukea sustatzeko gizarte-bazterketako egoeran dauden edo desgaitasunen bat duten pertsonak hartzen dituzten gizarteratze-egituren artean. Landare lurrintsuak eta baratzeak zaintzeko etxaldeok bi helburu partekatzen dituzte: gizarteratzea eta nekazaritza-ekoizpen ekologikoa. Horrelako lau egitura daude, desgaitasunen bat dutenei lanbide-jarduera bat eskaini eta mediku-, gizarte- eta hezkuntza-laguntza emateko. Egitura horietako bi gizarteratzeko baratzeak dira, eta gizarte-zailtasuneko egoeran dauden pertsonak hartzen dute parte. **Egunak** : 01/06/2022 – 30/11/2023
Aurrekontua : 25 000 €

Proiektuaren ekintzak

- Proiektuaren lehenengo zatian, begirale gainbegiratzailen topaketa bat egin zen. Bigarren zatian, berriz, egituretako langileek elkar ezagutu zuten. Lehenengo topaketa 2022ko irailean egin zen, Nafarroan, Josenea (Irunberri) eta Elkarkide (Iruña) etxaldeen artean. Lanarekiko interesa piztea eta norberaren gaitasunei balioa ematea izan zen helburua, ekonomia zirkularra sortzen saiatzeaz batera.
- Bigarrena Iparraldean egin zen, Château Bellevue eta Azpildako ESATetan (hau da, lanaren bidez laguntzeko establezimendu eta zerbitzuetan), non desgaitasunen bat duten pertsonak hartzen baitira. Jardunaldian, parte-hartzaileek etxaldeko askotariko lantegiak eta ESATeko denda ikusi ahal izan zituzten.

Emaizak

Bi topaketa horietatik, etxalde bakoitzaren antolaketari eta langile-kudeaketari buruzko truke interesgarriak sortu ziren.